



1. Eskolarteko Boulder Ligaxka'19 - GIPUZKOA

EGITARRAUA ETA PARTE-HARTZE OINARRIAK

- 1- Eguna eta lekua:** Ekainaren 2a, Usabal Kiroldegian. Usabal 25, Tolosa.
- 2- Partaideak eta mailak:** Gipuzkoako ikastetxeetako neska-mutilek har dezakete parte. Mailak: alebinak (2007-2008 jaiotakoak), infantilak (2005-2006 jaiotakoak) eta kadeteak (2003-2004 jaiotakoak).
- 3- Izen-ematea:** Maiatzaren 31 baino lehen internet bidez (www.usabalkiroldegia.com). Harpidetza-orrria bete eta ordainketa agiriarekin batera **ES 29 3035 0183 68 1830016672** usabalkiroldegia@hotmail.com helbidera bidali. 3€ partaideko, epetik kanpo edo egunean bertan eginez gero, 5€ partaideko.
- 4- Ordutegia:**
 - Eskalada: 9:30-13:30
 - Diplomak: 13:30-14:30
- 5- Helburua:** Errespetu eta adiskidetasun balioetan oinarrituta, norberaren trebetasunak partaideekin neurtzeko aukera izango dute.
- 6- Proba sistema:**
 - Zirkuito itxi bat egongo da.
 - Zirkuituaren helburua hurrek bloke guztiak probatzea da (25-30 bloke) zailtasun gutxiagotik gehiagora. Start-a eta Boulderra pegatinekin egongo da seinaleztatuta.
 - Haur bakoitzak fitxa bat izango du lorpenak apuntatzen joateko, X bat lortzen ez diren saiakerengatik eta T bat egindako saiakerengatik.
 - Maila bakoitzean sailkapen misto bakarra egongo da, hau da, sexu bereizketarik gabe (Ikusi "Sailkapen mistoa. Inkesta" eranskina).
 - Maila bakoitzean sailkatutako aurrengo hirurak diploma egiaztatu bat jasoko dute.
- 7- Opariak:** Partaide bakoitzak **Izadi Camp Baseren** kamiseta bat jasoko du.
- 8- Lehen sorospenak:** Sorospen zerbitzua DYArean ardurapean izango da.
- 9- Joan-etorria:** Automobil partikularrak erabiltzeak, arazo desberdinak sor ditzake: segurtasunekoak, trafikozkoak, aparkalekukoak, CO² igorpenak, etab. **Garraio kolektiboa erabili. TALDEAN GOAZ!**
- 10- Ezustekoak:** Ezustekoren bat gertatuz gero, antolatzaileen esku egongo da zer egin erabakitzea.
- 11- Partaideen irudiak:** Jarduera publikoa izanik, bai prentsan eta bai Federazioaren edo elkarte antolatzailearen webguneetan argitaratzeko bideo eta argazkiak aterako dira. Hala ere, umeen arduradunak argazkiak ez publikatzea eskatu dezake, bertan edo gmf-administrazioa@kirolak.net helbidean.
- 12- Aforoa:** Rokodromoko gehienezko aforoa 100 partaide da. Beraz, izen-ematen duten partaide kopuruak aforoa gaindituko balitz, 2 txanda desberdinetan banatuko dira partaideak, 9:30ean lehenengoa eta 11:30ean bigarrena izanik.





13- Oharra: Izen-emate libreak antolaketako baldintzak onartzea dakar.

1. BOULDER LIGAXKA '19 – 1^{era} BOULDER LIGAXKA '19

IZEN EMATEKO BOLETINA – BOLETÍN DE INSCRIPCIÓN

Ikastetxea / Centro: _____ **Elkartea / Club:** _____

Bakarka / Invidiua: *

Herria / Población: _____

Arduraduna / Responsable: _____ **Tfnoa. / Tel.:** _____

Listado de participantes y edad:

Alevines:	Infantiles:	Cadetes:
1.	1.	1.
2.	2.	2.
3.	3.	3.
4.	4.	4.
5.	5.	5.

- Usabal Kiroldegira bidali behar da boletina, **EZ FEDERAZIORA**.
- **Datu gutxi dira, baina den-denak beharrezkoak dira izen-emate ontzat hartzeko (kodea barne).**
- **Nahi izanez gero, Izen-emateko Boletinaren ordeiz, bertan eskatzen diren datuak epostaz bidali daitezke: usabalkiroldegia@hotmail.com**

- Hay que enviar este boletín al Polideportivo Usabal, **NO A LA FEDERACIÓN**.
- Son pocos datos, pero todos son necesarios para que la inscripción sea válida (incluido el código).
- Si se desea, en lugar del Boletín de Inscripción, se puede enviar por email los datos que se piden: usabalkiroldegia@hotmail.com

Ikastetxearen zigilua eta sinadura

Sello y firma del centro:





1.Boulder Ligaxka '19 – GIPUZKOA

SAILKAPEN MISTOAK - INKESTA

AURKEZPENA

Gipuzkoako Eskolarteko 1.Boulder Ligaxka '19, antolatu dugun probaren sistemaren arabera, partaide guztiek espazio fisiko bera partekatuko dute eta aukera izango dute bloke guztiak frogatzeko sexu eta kategoria bereizketarik gabe. Honela, mutilen eta nesken berdintasuna eta parekotasuna sustatuko da.

Kiroltasunez hitz eginez, adin goiztiarretan desberdintasun fisiko gutxi dago sexuen artean. Ikasleak hazten ari izan ahala, desberdintasunak nabarmentzen dira. Mutilengako indar muskular handiagoa eta neskenegako flexibilitate handiagoa. Eskaladan bi ezaugarriak eraginkor eta osagarriak dira.

Pasa den urtean inkesten emaitzetan oinarrituta, Gipuzkoako Eskolarteko Boulder Ligaxka '19ko lehenengo proban sailkapen mistoak egin ziren. Gai honekin adostasun handiagoa izateko inkesta berriro ere egin genuen 1.proban. Emaitza hurrengoak izan zen:

JASOTAKO INKESTAK

27 inkesta jaso dira guztira:

- Gurasoak.....24
- Entrenatzaileak.....3

Jasotako inkesten emaitzak

Emaitzak hurrengoak izan dira:

- **Sailkapen mistoa:**
 - ✓ % 89 Sailkapen mistoaren alde.
 - ✓ % 7 Aurka.
 - ✓ % 4 Berdin zaie.

BALORAZIOA

Emaitzetan argi nabarmentzen da gehiengoek sailkapen mistoaren alde daudela maila guztietan. Bi probetan egin dugu inkesta hau eta bietan gehiengo emaitza berdinarekin. Sailkapen orokorrean bai neskak eta bai mutilak maila berera lehiatu ahal izan direla egiaztatu da. Sailkapen mistoko formatua oso positiboki baloratzen dugu, Gipuzkoako Eskolarteko Eskaladan neska-mutilen partaideen aukeraberdintasuna sustatzeko.

Donostia, 2019ko otsailan